

Kirola

Durangoko kaleak kirolariz beteko dira bihar,
Mugarrak antolatutako zortzigarren duatloian > 16



Plateruena aurrera!

Plateruena aldeko jaialdian albiste pozgarri baten berri eman zuten:
Plateruena aurrera egingo du, '...eta urte askotarako!' kanpainaren
barruan herritarrek eta udalak egindako ekarpenei esker. > 3



Txelu Anjoitia

Durangoko Udala Espainiako eta Italiako ordezkariekin batzen ahaleginduko da

1937ko martxoaren 31ko bonbardaketan Espainiak eta Italiak eduki zuten erantzukizuna onartu dezaten eskatzeko, bi estatu horietako ordezkariekin bilzen saiatuko da Durangoko Udala. Batzar horretara Durango 1936 kultur elkarte eta Gerediaga Elkartea gonbidatzea erabaki dute. Bilduk eta Aralarrek eraman zuten eztabaida osoko bilkurara. Azkenean, EAJk eta EH Bilduk 2012an onartutako Durango 1936 elkartearen mozioari ekitea adostu zuten. > 4



ekin S. Coop.
Arriagane industrialdea (Boroa auzoa)
48340 Zornotza (Bizkaia) Spain
www.ekin.es

**Produzio fabrikak Brasilen,
Indian eta Mexikon**

Kaixo!
ireland
Uda Irlandan gozatu
Irlandako familia batekin
ingeleza ikasten
3aste
1400€
Jar zaitetz gurekin harremanetan!
www.kaixoireland.com

Durango > 2

600 euroko isunak ipini dituzte
erosketa tiketak ez ematearren

Atxondo > 6

AHTaren inguruko galdeketa
egin zela zortzi urte dira

Elorrio > 8

Ebalixu euskara taldea
aurkeztuko dute bihar

Durangaldea > 9

397 gaztek parte hartu zuten iaz
Jar Zaitetz Martxan egitasmoan

Herririk herri

600 euroko isunak ipini dituzte erosketa tiketa ez ematearren

Ogasunak, faktura ematen dela egiaztatzeko, kanpaina bat ipini du martxan

DURANGO Markel Onaindia Ogasuneko behatzaileen bisitagatik kezkatuta ibili dira hainbat tabernari eta dendari

joan zen astetik hona. Izan ere, Bizkaiko Ogasunak erosketa tiketa edo faktura ematen dela egiaztatzeko kanpaina bat ipini

du martxan, eta behatzaileek 600 euroko isunak jarri dizkiete tiketak eman ez dituzten komertzioei.



Merkatariek tiketa eman behar dute salmenta egitean.

Durangoko Alex kafetegian, adibidez, joan zen eguaztenean agertu zen Ogasuneko behatzailea. Tabernariak bost edari atara zituen behatzailea han egon zen bitartean, eta kontsumitzaileei erosketa tiketa ez ematearren isuna jasoko zuela azaldu zion Ogasunekoak. Alexeko tabernariak azaldu du suminduta daudela isunagatik. Ez du ulertzen zurito edo ardo bategatik tiketa eman beharra. “Beste gauza bat litzateke salmentak ez

bisitaren gaia, eta taberna zein denda askotan tiketa ematen hasi dira geroztik. Beste hainbat herritan ere ibili dira behatzaileak, Zornotzako tabernetan, esaterako.

Herritarren eskubidea Bizkaiko Ogasuneko ordezkariak ohartarazi dute tiketa ematea nahitaezkoa dela, eta enpresariak jasotzen dituzten sarrekin “kontrol hobea” errazten duela. Baina, horretaz gainera, herritarrek daukaten eskubide bat ere badela argitu dute, “erreklamazioak egin ahal izateko”. Horri lotuta, erosketak egitean tiketa eskatzera animatu dituzte herritarrek, “erreklamatu ahal izateko eta iruzurraren kontrako borrokan laguntzeko”.

Bizkaiko Ogasuneko teknikariak ohartarazi dute tiketa ematea nahitaezkoa dela

erregistratzea. Baina guk guztia aitortzen dugu”. Bost tiket izan zirenez eman barik utzitakoak, 3.000 euroko isuna espero duela adierazi du tabernariak. Baina Ogasuneko arduradunek gezurtatu egin diote hori ANBOTOrri. Faktura bat baino gehiago izanda ere, isuna 600 eurokoa izango dela azaldu dute.

Durangon oso arin zabaldu zen Ogasuneko behatzaileen

Iruzur fiskalaren aurka Iruzur fiskalaren kontrako plan bat landu du Bizkaiko Ogasunak, eta horren barruan sartzen da komertzioetan fakturak eskatzea. Bestelako sektoreak ere aztertuko dituzte: esate baterako, abokatuena, medikuntza arloko langileena, turismoaren sustapenean dabilzanena eta eraikinak birgaitzen dituzten beharginena.

Kaleetarako emakume izenak proposatzeko deia

Kaleen izenak parekatzeko konpromisoa du udalak

DURANGO M.O. Durangoko Berdintasun Kontseiluaren mozio bati esker, emakume eta gizonen izenak dituzten kaleen kopurua parekatzeko konpromisoa hartu zuen udalak otsaileko osoko bilkuran. Izan ere, Andra Maria eta Santa Ana kenduta, adibidez, Durangon ez dago ia emakumei eskainitako kalerik. Bada, udalak martxan ipini du lanketa, eta emakume izenak proposatzeko deia egin die herritarrei. Apirilaren 12ra arte egongo da proposamenak

egiteko aukera, www.durango-udala.net webgunean eta Andragunean.

Ekarpenak agerian

Kulturaren, jendarterean, arlo politikoan, zientzietan, enpresa munduan eta euskararen zabal-kundeetan emakumeek egin dituzten ekarpen garrantzitsuak agerian jartzea eta zabaltzea da Berdintasun Kontseiluaren eta udalaren helburua. Izan proposatzeko hiru irizpide eman dituzte. Batetik, Euskal Herri-

koa izatea –Durangogaz edo Durangaldeagaz edukitako lotura lehenetsiko da–. Bigarrenik, hilda egotea. Hirugarrenik, berdintasunaren alde lan egin edo feminista izatea.

Udalak eta kontseiluak herritarrek animatu gura izan dituzte izenak proposatzera. Jasotako ekarpenekin, emakume izena ipiniko diete, besteak beste, Durangoko kale, plaza, eraikuntza eta parkeei.

Udalak martxan ipini du lanketa, eta emakume izenak proposatzeko deia egin die herritarrei



Zapaburu konpartsak emakume izenak zituzten kartelak ipini zituen 2011n.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org


2015eko martxoaren 27a,
13. urtea - 583. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Ixaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Amaia Ugalde Begoña, Martxel Zubia Arrinda, Eneko Azurmendi Barrena.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Plateruenak aurrera egingo du, herritarrek eta udalak lagunduta

Plateruenaren aldeko jaialdia egin zuten atzo

DURANGO M. Onaindia

Poza eta irribarrea nagusi ziren atzo, Plateruena Kafe Antzokian. Izan ere, kultur-gune herritarraren egitasmoak aurrera egingo du, zorra ordaintzeko behar zuen dirua lortu ostean. Herritarrek eta udalak egindako ekarpenei esker, Plateruena urte askotarako egongo da bizirik. Hori ospatzeko ekitaldia egin zuten atzo *zilargin* diren herritar eta langileekin.

la 400 herritar eta udala

Udal jabetzakoa den eraikina zaharberritzeko eta zabalteko egindako inbertsioetik, banketxei oraindik 250.000 euroko zorra ordaintzea falta zaio Plateruenari. Horregatik, aurrera begira proiektua bermatu ahal izateko, *...eta urte askotarako!* ekarpen kanpaina hasi zuen 2014ko urrian. Helburua zen bost urtean zorra ordainduta edukitzea. Bada, ia 400 herritarren bost urterako konpromisoari esker erdia bete dute, eta beste erdia udalagaz sinatutako bost urterako hitzarmenagaz beteko da. Horrela, Plateruenak kultur proiektua lantzen jarraituko du aurrerantzean. Hain zuzen ere, ekarpen kanpainaren au-

rretik kultur proiektua berri-dazteko gogoeta prozesua abiatu zuen herritarrekin batera, eta kudeaketa parte-hartzailea garatzea ondorioztatu zuten.

“Pozik eta harro”

Atzoko ekitaldian Nerea Iriarte zuzendaritzako kideak hartu zuen berba: “Pozik eta harro gaude. Pozik helburua lortu dugulako: Plateruenaren etorkizuna ziurtatzea. Eta harro helburua lortzeko moduagatik: durangarren babesagaz eta Durangoko Udalagaz elkarlanean lortu dugulako”. Iriartek adierazi zuen “kultura aldaketa” hori hasi besterik ez dutela egin. Antolatzeko modua parte-hartzean oinarritzen dute, borondatezko lana bultzatu dute, eta udal ordezkariekin hartu-emanabi dute, “herri ekimenaren helburu sozialak zerbitzu publikoagaz uztartuz”.

Etorkizunari ilusioz begiratzen diote. Eguneroko jardun ekonomikoa bideragarria da, eta hori “zorrotz” zainduko dutela diote. “Durango biziago, sortzaileago, kritikago, berdinzaleago, anitzago, festazaleago eta aho beteago bat euskaraz egiteko gabilta ekin”.



Nerea Iriartek eman zituen kanpainaren inguruko azalpenak.



Ez dute tren geltoki zaharra berrerabiltzerik gura

Bilduren eta Aralarren proposamena ez dute onartu

DURANGO M.O.

Bilduk eta Aralarrek Durangoko tren geltoki zaharraren egoitza herrirako erabili dadila gura dute, eta horren aldeko mozio bat aurkeztu dute osoko bilkuran. Baina gainontzeko

alderdiek kontra bozkatu dute, eta ez du aurrera egin. *Durango Operazioaren* barruan, eraikina botatzea aurreikusita dago, eta eraisketa eteteko eskatu gura izan diote Eusko Jaurlaritzari. Ion Andoni Del Amo zinego-

tziak azaldu du eraikinak “balio arkitektonikoa, historikoa, kulturala eta simbolikoa” dauzkala Durangorentzat.

PSE-EEko Pilar Riosen ustez, udal teknikariek diote eraikina ez dagoela egoera onean, eta “diru asko” beharko litzatekeela berritzeko. PPko Juan José Gastañatorreren iritziz, “Bildu eta Aralar garapena dakarren edozeren kontra doaz”. EAJk ez zuen iritzirik agertu, eta batzordean lantzea eskatu zuen.



Tren geltoki zaharra berrerabili dadila gura du EH Bilduk.

KRONOLOGIA

2004ko urria

Plateruena zabaldu zuten, Barbaro euskara elkartearen iniziatibari esker. Bazkideen eta banketxeen diruagaz egin zuten obra udal jabetzako eraikinean.

2013ko azaroa

‘Zilarberritzen’ izeneko gogoeta prozesua ipini zuen martxan antzokiak, kultur egitasmoa herritarrekin eta sortzaileekin batera berritzeko.

2014ko uztaila

Gogoetaren ondorioak eman zituzten, eta gestio parte-hartzailea garatzea, lantaldeetan antolatzea, eta sortzaile eta elkartei berba ematea adostu zuten.

2014ko iraila

Borondatezko lan eta ekarpen kanpaina aurkeztu zuten, 250.000 euroko zorrari aurre egiteko.

2014ko abendua

400 herritarren ekarpenagaz, zorraren erdia bete zuten.

2015eko martxoa

Udalagaz landutako hartu-emanaren ondorioz, zorraren beste erdia ordaintzeko akordioa lortu dute.

Chimeneas
Cerámicas **MACOBER**
MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan
Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak
Betikoak
flexografía
946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

PSE-EEren ustez, ondo egin zen udaleko Enplegu Plana

DURANGO M.O.

Lan Ikuskaritzak ebatzi du udalak langileen lagapen ilegala egin zuela Enplegu Planean, baina PSE-EEko Pilar Riosek plan hori ondo egin zela uste du. PSE-EE izan zen sustatzailea. Riosek azaldu du legeak babesten duela beharginen kontratazioa gizarteratzea bultzatzen duten enpresekin egi-



PILAR RÍOS

tea, eta erabaki hori ez zutela dirua aurrezteko hartu. Udaleko hitzarmena barik, sektoreko ezarri zieten beharginen, baina, Riosen ustez, soldata duinak eduki dituzte; hamaika peoiek 2.500 eurokoa, eta ofizial biek 3.000 eurokoa. Udaleko hitzarmenean baino 600 eta 400 euro gutxiago.

Osoko bilkuran, horrelako planak egiten segitzea onartu zuten PSE-EEk, EAJk eta PPK.

Espainiako eta Italiako ordezkariekin batzen ahaleginduko da udala

Bonbardaketan estatuek edukitako erantzukizuna onartzeko eskatuko du udalak



laz, martxoaren 31n eginiko oroimen ekitaldian ateratako argazkia. Txelu Angoitia (Gerediagaren artxiboa)

DURANGO Markel Onaindia Durangoko Udala Espainiako Gobernuaren ordezkariagaz eta Italiako kontsulagaz batzartzen ahaleginduko da, 1937ko martxoaren 31ko bombardaketan estatu biek eduki zuten erantzukizuna onartu dezaten. Batzar horretara Durango 1936 eta Gerediaga elkarteak gonbidatzea ere erabaki dute. Bilduk eta Aralarrek eraman zuten eztabaida

osoko bilkurara, duela hiru urte onartutako Durango 1936 elkarrearen mozioan oinarrituta.

Mozio berria ez zen bozkatu. PSE-EEk eta PPK ez dute uste gaur egungo gobernuak orduko egindakoaz barkamena eskatu behar dutenik, eta EAJk atzeratzea eskatu zuen, adostasuna lortzeko. Azkenean, EAJk eta EH Bilduk 2012an onartutakoari ekitea adostu zuten.

Durango 1936ren kritika

Udalak bombardaketaren gaia lantzeko izandako moduagaz kritikoa agertu da Durango 1936 elkarteak. “Durango eta durangarrak desberdinak gara: ahanztura da gure leloa”. Hausnarketa egiteko ordua dela esan du elkarteak, eta proposamenak bota ditu: ikertzea, kalteak zehaztea eta bombardaketari gune bat eskaintzea, adibidez.

Behargin bat kontratatzeke lankidetzaren hitzarmena

MALLABIA Jone Guenetxea Mallabiko Udalak behargin bat kontratatzeke lankidetzaren hitzarmena sinatu berri du Berrizko Udalagaz eta Urkiola Landa Garapenerako Elkarteagaz batera. Berrizko eta Mallabiko udalek herrian konposta kudeatzeko zerbitzua dute, eta konpost prozesua zaintzeko behargin bat kontratatzeke

Mallabiak eta Berrizek konpost zerbitzua dute, eta Urkiola LGEk GR-229 Mikeldi ibilbidea

beharra zuten. Era berean, Urkiola Landa Garapenerako Elkarteak Durangaldea zeharkatzen duen GR-229 Mikeldi mendi ibilbidea mantentzeko eta garbitzeko langile bat kontratatatu gura zuten. Hiru erakundeek sinatutako hitzarmenaren bidez kontratatuko duten langileak zeregin horiek guztiak beteko ditu.

Erregistro zibila ez pribatizatzeko eskaera egin du udalak

DURANGO M.O.

PSE-EE alderdiak aurkeztuta, erregistro zibila ez pribatizatzeko eskatzen zuten mozioa eztabaidatu zuten osoko bilkuran. Espainiako Gobernuak aldaketa eman nahi du zerbitzuan, eta, sozialisten arabera, hainbat tramite egiteko Bilbora joan beharko da aurrerantzean. 3.500 lanpostu galtzea ere ekarriko lukeela diote. Denek babestu zuten mozioa, PPK izan ezik; ez dela pribatizatzeko eta doakoa izango dela dio PPK.

Hasi dituzte udako jaiak prestatzeko batzarrak

Ekainaren 26tik uztailaren 2ra ospatuko dituzte jaiak

BERRIZ Amaia Ugalde

San Pedro eta Santa Isabel jaiak prestatzeko lehen batzarra martitzen honetan egin dute. Herriko elkarteak eta norbanakoak hasi dira lehen erabakiak hartzen, eta, tartean, jaiak noiztik nora izango diren zehaztu dute; ekainaren 26an hasi, eta uztailaren 2an amaituko dira aurten. Hurrengo batzarra Aste Santu ostean egingo dute, baina ez dute data zehaztu.

Bestalde, hasi da San Pedro eta Santa Isabel jaietako kartela

aukeratzeko lehiaketa. Apirilaren 24a izango da lanak liburutegian entregatzeko azken eguna.

Kartel proposamenak jaso eta gero, erakusketan ipiniko dituzte, herritarrek gogokoenari botoa emateko. Gero, hiru bozkatuen artean erabakiko du epaimahaiak nork irabaziko duen. Lehiaketako irabazleak 400 euro eskuratuko ditu. Irabazlea berriztarra ez bada, Berrizko lanik onenak 150 euroko saria jasoko du.

Kirola egiteko eta euskara ikasteko laguntzak udalean

Kirola egiteko grina piztea da helburuetako bat

IZURTZA Joseba Derteano

Otsaileko azken udalbatzarrean, hainbat diru-laguntzaren ordenantzak onartu zituzten behin-behinean. Ordenantzetako batean, bi laguntza zehaztu zituzten: Durangaldeko udal kirol erakundeetan kirol eskaintzako abonamenduak lortzeko laguntzak eta euskara ikastaroen matrikulak ordaintzeko laguntzak.

Kirolerako abonamenduen kasuan, diruz lagunduko den zenbatekoa erroldatuen abo-

namendu-tarifen eta erroldatu gabeen abonamendutariaren arteko aldea izango da, beti ere, jarduera hori Izurtzan egiteko modurik ez badago.

Euskara ikastaroen kasuan, diruz lagunduko den zenbatekoa 2014-15 ikasturteko euskara ikastaroen -EAEko edozein hizkuntza eskola ofizial edo euskaltegitan- matrikularen prezioaren %50 izango da.

Laguntzen gaineko xehetasunak jasotzen dituen ordenantza udaletxean dago ikusgai.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

GALLASTEGI
www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO



azken aukerak ez galdu

ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuena ren erretasteren arrazolak:

- Finantzazko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologia (1, 2, 3 eta 4 etak)
- Tenak eta zelaketa **BUZTIETAN**
- Yngentzia deneko **HISTA** gertak
- Urtetik **PLAZA** zaba a
- Auzoan **BURU EMATEA**
- Salazazko **URBANIZAZIO MARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** erakinet k erretak
- Herrig irretak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABENO** auzoan

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU



www.solvía.es www.sukia.com 

946 46 20 41 
www.sukia.com 

 **sukia** Agente de Inmobiliarias
Financieras



Eguaztanean, herri galdeketa urteurrenean, hainbat herritarrek prentsaurrekoa eskaini zuten Apatako gaztetxean.

“Zain gauzkate orain ere; erokeria honi aurre egiten jarraituko dugu”

AHTaren obrak esleitzeko asmoaren aurrean, “herri osoa parean aurkituko dute”, adierazi dute herri galdeketa egin zeneko zortzigarren urteurrenean

ATXONDO Joseba Derteano 2007ko martxoaren 25ean, AHTaren gainean herritarrek duten iritzia zein den jakiteko galdeketa egin zuten Atxondon. Herri mugimendutik antolatutako galdeketa izan zen. Harrezkero zortzi urte joan dira. Gobernuak Atxondo-Abadiño arteko tartea esleitzeko asmoa erakutsi berri du, eta hainbat herritarrek urteurrena aprobetxatu dute AHTak herrian eragingo lukeen “txikizioa” gogoratu, eta honako

mezu hau igortzeko: “Zain gauzkate orain ere datorrenari aurre egira esateko egunetik egunera arrazoiak pilatzen gabiltzala AHTari ezetz esateko; erokeria honi aurre egiten jarraituko dugu”, esan zuen galdeketa sustatzaileetako bat izan zen Andoni Arbuluk. “Herri osoa parean aurkituko dute”.

2007ko galdeketa 471 herritarrek parte hartu zuten, eta 468k AHTari ezetz esan zioten.

Atxondoko tartea egiteak “gurean txikizio handia eragin-

go luke”. Kilometro eta erdi luzeko zubia herriko plazatik 200 metrora eraikiko lukete: “Herritarren bizi kalitatea kaltetu egingo litzateke, eta, ondorioz, gure herria hustu”.

Gainera, AHTa “guztiz defizitarioa izango da”, adierazi zuenez. “Nondik aterako dute hori mantentzeko dirua? Herritarren poltsikotik”. Trena Madrilera eta Parisera helduko ote den ere zalantzan ipini zuen: “Inora ez doan trena da. Abiadura handiko uhartea”.



Maider Eguren Oleaga

2007ko herri galdeketa sustatzaileetako bat

> HERRI GALDEKETA J.D.

Herri galdeketa non izan zuen sorburua?

Galdeketa egin baino urte bi lehenago herria mugitzen hasi zen; AHT Gelditu Elkarlanaren inguruan mugimendu indartsu bat sortu zen, bai eskualdean, bai Euskal Herrian. Atxondon herri galdeketa egin behar genuela erabaki genuen. AHTa herritik oso gertu igaro daiteke, eta herriak iritzia eman behar zuela uste genuen.

Herri galdeketa prestatzeko lan handia eskatu zizuen?

Elkarlanean zortzi-hamar lagun genbiltzan, baina ez ginen gu bakarrik ibili, herritar askoren arteko elkarlana izan zen: etxerik etxe informazioa banatu, herri batzarretara deitu, hitzaldiak antolatu... Lan handia izan zen herritarrengana

“Herri galdeketa egitea herritar askoren arteko elkarlana izan zen”

hurreratzea, AHTa eraikitzeak zer suposatuko lukeen azaltzea eta AHTari ezetz esateko ha- maika arrazoi ematea. Gero, bakoitzak bere iritzia emango zuen galdeketa. Baina mugimendu indartsua izan zen, gaia pil-pilean zegoen, eta jendeak bazuen jakiteko interesa.

Zelan gogoratzen duzu herri galdeketa eguna?

Urduri geunden, baina jendearen partaidetza oso handia izan zen, eta oso pozik geratu ginen.

Zortzi urte joan dira herri galdeketa egin zenutenetik.

Harrezkero gauza asko pasatu dira. Orain lau urte desjabetzeak egitera etorri ziren, baina ez ziren gauzatu. Esango nuke lasaitasun une batean egon garela. Orain berriro ere indarrak hartzen gabiltza, etortzen direnean aurrean egongo garela esateko. Eta konturatu daitezela Abiadura Handiko Trena Atxondotik ez dela igaroko, eta Euskal Herritik ere ez.

Zorrak kitatuta, inbertsioak egiteko aukera aurrekontuan

Aurten 402.000 euro bideratu dituzte inbertsioetara

> ATXONDO J.D.

Asteleheneko udalbatzarrean, 2015. urteari dagozkion udal aurrekontuak onartu zituzten gobernu taldearen (Bildu) aldeko botoekin. EAJ alderdiak kontra bozkatu zuen.

Aurtengo diru sarrera 1.823.294 eurokoa izango dela aurreikusi dute, eta gastuak kopuru horretara egokituko dituzte. Hainbat arrazoiaren ondorioz, aurrekontu “saneatuak” direla adierazi zuen Rosa Elizburu alkateak. Alde batetik, azken urteetan “gastuak kontrolatu” eta apurka “zor guztiak kitatu” dituzte: “Geratzen diren zorrek maileguak dira, eta ez dugu inongo arazorik horiei aurre egiteko”. Azken lau urteetan urteko kontuen itxiera positiboa izan dute.

Egoera horrek “segurtasuna eta ilusioa” eragiten ditu, eta “etorkizunera begira bide onean jartzen gaitu”, Elizbururen esanetan. Horrela, aurreko urteekin alderatuz gero, aurten inbertsio errealak egiteko au-

kerak du udalak, eta hurrengo urteetan, maileguak gutxitzen joan ahala, inbertsioetarako aukerak handitu egingo dira: “Hori izango da hurrengo urteetarako dinamika”.

Pilotalekuaren itxiera

Aurten 402.000 euro gorde dituzte inbertsioetarako. 50.000 eurogaz, pilotalekua itxi egingo dute. Zabaldu eta itxi egiten den egitura mugikor bat jarriko diotela adierazi dute arduradunek.

Beste 100.000 euro udal- txean igogailu bat jartzeko baliatuko dituzte. Udalak osatuta duen Irisgarritasun Planeko ekintzen barruan dago, eta aurten gauzatuko dute.

Inbertsioetan jasotako beste 50.000 eurogaz udalerriko argiteria publikoaren kontu- ikuskapena egingo dute, bertan dirua zelan aurreztu jakiteko.

Arrazolan etxebizitza sozialak dituen eraikinak hezetasun arazoak ditu, eta horiei konponbidea emateko 65.000 euroko diru atala sortu dute.

Bideoa osatu dute Urrijena jaian eginiko grabazioekin

19:00etan argazkiak banatuko dizkiete dantzari

> IURRETA Amaia Ugalde

Urrijena dantzarien jaiak irudi ikusgarriak utzi zituen iazko urriaren 12an. Argazki eta bideoak batu dituzte Urrijena Batzordeko kideek, eta argazkiak gaur iluntzean banatuko dituzte, 19:00etan. Eguraldi ona eginez gero, Dantzari plazan batuko dira, eta, txarra eginez gero, Goiuria kultur etxean. Argazkiak banatzeaz gainera, grabazioekin sortutako bideoa ere proiektatuko dute.

Urrijena jaiaren ostean, ohitura da jaiko argazki guztiak batu, eta dantzarietara banatzea. Lehen paperezko argazkietan egiten zutena, orain formatu digitalean egingo dute. Eneko Barroeta Urrijena Batzordeko kideak azaldu duenez, 3.000 argazki baino gehiagoko CDaren kopiak egin dituzte. Dantzari guztientzako kopiak egin dituzte, eta, gaur ekitaldira hurreratu ezean, taldeetako arduradunen bidez egingo dute banaketa. Aurtengo nobedadea jaiko grabazioekin egindako muntaia

da. Gaur iluntzean proiektatuko dute muntaia zati bat, eta DVDA astelehenetik aurrera Iurretako kopistegian egongo da salgai, 3 euroan. Ia ekitaldi osoa batzen duen muntaia eta

Grabazioen DVDA Iurretako kopistegian egongo da salgai astelehenetik aurrera, 3 euroan

bertsio labur bat prestatu dituzte ikus-entzunezkoarako.

Hainbat lagunaren ekarpena

Batutako materiala hainbat lagunena da. Argazkiak Txelu Angoitiak, Goiuri Aldekoa-Otalorak, Txebi Arriagak eta Jon Gamindek ateratakoak dira. Bideoak, aldiz, Ainara Petitek, Karmelo Alberdik, Alberto Perez Urrestik eta Jon Gamindek grabatutakoak dira, eta Asier Vera eta Eneko Barroeta arduratu dira muntaia egiteaz.

Ume dantzarien euskal jaia ekainaren 7ra aldatu dute

> GARAI Markel Onaindia

Garaiko Udalak eta Trumoitte kultur elkarteak elkarlanean ume dantzarien euskal jaia antolatuko du ekainean. Hasiera batean, ekainaren 14an egingo zela iragarri zuten, baina orain ekainaren 7ra aurreratzea erabaki dute. Izan ere, 14an Abadiñon egingo dute antzeko ospakizun bat, eta ekimen biak elkarri traba ez egiteko pentsatu dute data aldatzea.

Bestalde, astelehenean, martxoak 31, amaituko da ume dantzariak etxean bazkaltzen hartzeko eskaera egiteko epea. Horrelako jaietan tradizioa izaten da kanpotik datozen umeek herriko etxeetan bazkaltzea, eta antolatzaileek jakin gura dute zenbat herritar dauden horretarako prest. Izan ere, kopuru horren arabera zehaztuko dute zenbat dantza talde gonbidatuko dituzten.

Ume dantzarien alardea eta erromeria egongo dira, besteak beste, ekainaren 7ko ekitaldian.



Iazko topaketetan izandako hitzaldi bat.

Enpresen arteko topaketa egingo dute gaur, Zelaieta zentroan

Lan-gatazkak zelan konpondu izango da landuko den gaietako bat

ZORNOTZA J. Derteano Zornotzako Udalak enpresen topaketa estrategiko bat antolatu du gaurko, Zelaieta zentroan. Helburua da herriko enpresen garapenerako zein eguneroko kudeaketarako interesgarriak izan daitezkeen gaiak lantzea eta informazioa banatzea. Zornotzan topaketa hauek antolatzen dituzten laugarren aldia aurtengoa.

Goizetik eguerdira batuko dira Zelaieta zentroan, eta, besteak beste, hitzaldi bi antolatu dituzte. Lehenengoan Bizkaiko Enpresaburuen Konfederazio (Cebek) Mikel Anderezek

parte hartuko du, eta *Lan harremanen errealitate berria: adostasunak eta desadostasunak kudeatu eremu kolektiboan* izeneko hitzaldia eskainiko du. Lan harremanen eremu kolektiboan desadostasunak sortzen direnean, horiek kudeatzeko modurik onenak zeintzuk diren azalduko ditu.

Bigarren hitzaldiak Gizagune Fundazioko Maria Eugenia Ramos izango du hizlari moduan. Ramosek gatazka kolektiboak ez diren barne-gatazkei buruz jardungo du, eta egoera horiek kudeatzeko gakoak eskainiko ditu. Hain zuzen, Giza-

gune Fundazioaren jardunbide nagusietako bat horixe da: enpresetan sortu daitezkeen arazoak bideratzeko metodologiak lantzea.

Udalaren diru-laguntzak

Hitzaldi bi horietaz gainera, Zornotzako Udalak enplegua sortzea eta sustatzea helburu duten diru-laguntzak arautzeko oinarriak azalduko ditu topaketan. Esaterako, enpresek laguntzak jaso ditzakete langile zornotzarrak kontratatzeagatik, eta baita behin-behineko kontratuak indefinitu bihurtzeagatik ere.

Plazako jolasak eta baranda kendu beharko ditu udalak

MAÑARIA Markel Onaindia Herriko plazan dauden umeen jolas edo zabuak, eta erreka alboko baranda kendu beharko ditu udalak. Hori da ur harguneeen partzuergotik udalera heldutako erabakia. Errekatik bost metrora bitartean daude, eta hori ez da legezkoa.

2003an plazako obra egin aurretik ere, partzuergoak esana zuen proiektua ez zegoela legegaren barruan. Baina udalak aurrera jarraitu zuen. Gero, 600 euroko isuna ipini zioten udalari, eta jolas zein baranda kentzea agindu. Endika Jaio gaur egungo alkateak (Bildu) azaldu duenez, orduko gobernu taldeak (EAJ) isuna ordaindu zuen, baina ez zuen eskatutakoa bete. Horrela, aurten berriro isuna eta agindua heldu dira udalera. Isuna handiagoa da: 600 eurokoaz gainera, 240 euroko hamar isun ere bai, urteotan agindua ez betetzearen. EAJk egindakoa kritikatu du Jaio: “Ez dugu ulertzen. Plaza egin zenean txapuza bat egin zen, baimen guztiak lortu barik, arineketan egitearren”. Gogoratu du Jose Luis Bilbao diputatuak inauguratu zuela plaza hauteskunde kanpainan. Jolasak eta baranda beharrezkoak direla dio Jaio, baina “ondo” pentsatu behar dutela non ipini.

Berdintasuna bultzatzeko hainbat ekintza aurtengo planean

OTXANDIO J.D.

Otsaileko udalbatzarrean, 2015era begirako ekintzak jasotzen dituen Berdintasun Plana onartu zuten aho batez.

Barne kudeaketari, zein herriari eta herritarrei begirako hainbat ekintza zehatz jasotzen ditu planak. Barrura begira, udaleko batzordeen ar-

Sexistak ez diren gizarte ereduera heltzeko beharrezkoak diren balioak bultzatuko dituzte

teko koordinazioan sakonduko dute, eta baita udalaren eta gizarte-langilearen –Amankomunazgotik kontratatzen den zerbitzua da– artekoan ere.

Kanpora begira, besteak beste, pobrezia edo bazterketa arriskuan edo egoeran dauden ikuspegia barneratuko duen gizarteratze eta laneratze proiektu baten bideragarritasuna baloratuko dute. Izan ere, egoera horretan daudenentzako zerbitzuak Otxandiotik kanpora daude gaur egun.

Herri eta udal ekimenetan sexistak ez diren gizarte ereduera heltzeko beharrezkoak diren balioak ere bultzatuko dituzte.

Umeen aisialdirako hainbat aukera, udan

Zabaldu dute udalekuearako izena emateko epea

ABADIÑO Itsaso Esteban Ludoteka eta udalekua eskainiko ditu uztailean Abadiño-ko Udalak, 3 eta 16 urte arteko umeei eta gazteei zuzenduta.

Ludoteka eta 9 urtera artekoentzako udalekuak uztailearen 6tik 17ra, 09:30etik 13:30era, izango dira, Zelaietako eskolan. 10 eta 16 urte artekoentzako, bestalde,



2013. urteko udalekuefako irudi bat.

eskaintza bi luzatu dituzte: batetik, ekainaren 28tik uztailearen 4ra, astebete beste herri bateko ostatu edo camping batean emateko aukera izango dute gazteek, eta tailerrak, kirola eta aisialdiko beste hainbat jardura egingo dituzte. Gainera, uztailearen 6tik 10era Abadiñon bertan egingo dituzten udalekuean parte hartu ahalko dute izena ematen duten gazteek.

Udal gobernu taldeko arduradunek azpimarratu dutenez, ekintza horien helburua da “neskato-mutikoek opor giroko jardura atseginetan parte hartzea, eta haien adin eta gustueta-ara egokitutako ekintza eta tailer ludikoetan jarduteko aukera eskaintzea, jolasaren bitartez ondo pasatu eta ikasi dezaten”.

Apirilaren 13ra arte egongo da udako ekintza horietan parte hartzeko izena emateko aukera. Udal Mediatekan zein Errota kultur etxean eman daiteke izena. Interesa duenak Abadiño-ko Udalaren webgunean aurkituko du prezioen eta daten gaineko informazio zehatza.

Aurrekontu proposamenari ezezkoa emango dio Bilduk

Udal aurrekontu proposamenaren kontra egoteko arrazoiak azaldu ditu Bilduk prentsa ohar batean

ABADIÑO I.E.

Prentsa ohar bat zabaldu du Bilduk, datorren martitzeneko Abadiño-ko udalbatzarrean eztabaidatuko duten aurrekontu proposamenari ezezko botoa emango diola aurreratzeke. Gobernu taldearen 2015erako udal aurrekontu proposamenari ezezkoa emateko arrazoiak zerrendatu ditu bertan Bilduk.

Koalizioak kritikatu du Abadiño-ko Independentiek taldeko udal gobernuaren aurrekontu proposamena ez dela era parte-hartzailean jorratu eta ez dagoela egungo testuinguru sozioekonomikora moldatuta.

Faltan botatzen ditu, besteak beste, enplegu eta etxebizitza arazoei aurre egiteko, zein gizarte zerbitzuen beharri-

nei erantzuteko planak. “Inbertsioak etorkizuneko herri proiektu zehatzik eta hausnarketa sakonik barik egiten dituzte”, adierazi dute koalizioek.

Bestalde, udal aurrekontu proposamenaren jasotzen den bezala, “azpikontrataziora bideratutako partida %15 handitzea zerbitzu publikoen pribatizazioan urrats bat gehiago ematea” dela uste du Bilduk.

“EAJk legegintzaldi osoko aurrekontuetan Abadiño-ko Independenteei emandako babesa” gogor kritikatu du ohar horretan EH Bilduk: “Bere jarrreragaz, Abadiño etorkizuneko proiektu integralik gabeko eta pilotutako hainbat arazo dituen herria izatera kondendatu dute jeltzaleek”.

Ebalixu euskara taldea aurkeztuko dute bihar dokumental batez

Gazteen arteko euskararen erabilera urriak kezkatuta, Ebalixu taldea jaio da



Eskerretik eskumara, Itsaso Basauri eta Nerea Berriozabal.

ELORRIO Markel Onaindia Elorrioko gazteen %94 euskaraz berba egiteko kapaz dira, baina kalean euren arteko elkarrizketen %76 gaztelaniaz izaten dira. Euskararen erabilera lotutako datu txar hori 2013ko neurketa baten emaitza da. Egoerak kezkatuta, gazte talde bat batzen hasi da, eta herriko hainbat gazterengana jo dute euskara zelan bizi duten galdetzeko. Berbaldi horiekin guztiekin dokumental bat landu dute, eta bihar Arri-

lan proiektatuko dute, 18:00etan. Jaio berri den euskara taldeari Ebalixu izena ipini diote, eta bihar aurkezpena egiteko aprobetxatuko dute.

Itsaso Basauri eta Nerea Berriozabal dira Ebalixu taldeko gazteetako bi. Euren dinamika zerbaiten hasiera lez ikusten du Basaurik: "Azken urteetan ez da lanketarik egin, eta ez da gazteen ahotan ibili den gai bat. Gura duguna da plazara atera eta, behintzat, berba egin dadila ho-

nen inguruan". Berriozabalek esan du transmisioagaz kezkatuta daudela, eta kontraesan bizi direla uste du: "Euskararen aldeko aldarria egiten dugu, baina gero ez dugu erabiltzen".

Erabilera eskasaren arrazoiak galdetuta, Basaurik azaldu du dokumentalean hainbat gako agertzen direla. "Arrazoi bat izan ahal da gaztelaniarako jauzi inkontziente bat dagoela. Norbere erreferenteak bi-hiru urte gehiago dituztenak dira, eta

horiek gaztelaniaz berba egiten badute, gaztelaniara jauzi egiteko joera daukagu". Horregatik, euskara erabiltzeko "jauzi kontziente" bat egin behar dela uste du. Bestalde, erreferenteek euskaraz egitearen garrantzia nabarmendu du Basaurik: "Entrenatzaile batek euskaraz egiteko joera badu, horren arabera izango da taldearen erabilera". Beraz, euskararen alde era aktiboan parte hartzea deitu du. "Sentsazioa daukat euskara beste nor edo nork erabiltzeko itxaroten gaudela", dio Basaurik.

Geroari itxaron barik, orain eragiteko beharra dagoela uste du Berriozabalek ere: "Nik, Nereak, zer egin dezaket orain?". Gainera, argitu gura izan du lan hori ez dela bakarrik Ebalixu taldearena, eta ardura herriko gazteen artean banatzeko proposamena egin du. Edozelan ere, kaleko euskararen hutsune orokor bat dagoela uste du, lagunartean kosta egiten dela euskarara jotzea. "Ez bazara libre sentitzen lagunekin brometan zaudenean, zer edo zer faltan dago". Horretan eragin gura dute.

Berriozabalek adierazi du gazteentzako proiektu "erakargarria eta ez-burokratiko" sortu gura izan dutela: "Instituzioek ez dituzte erreferenteak sortuko, eta, beharbada, gazteen artean topatu ahal ditugu".

SEI HANKAKO MAHAIA

EIDER URIBE

Bildu



Arduragabekeriaz jokatzea

Orain gutxi gure herriko alkatearen deklarazio batzuk irakurri ditugu: "Aurrekontuen proiektua prest egon da, baina agerian dago ez dagoela gurekin adostasunik lortzeko inongo gogorik". Dioena egia ez dela sinistarazi nahi dugu, bestela arduragabekeria galanta eta jarrera lotsagarria iruditzen zaigu, urtarrilean aurrekontuak aurrera eramateko gure prestutasuna adierazi genuelako. Nork ez du adostasunik lortu nahi? Aukerarik izan al dugu?

Astearteko osoko bilkuran, udal eraikinetako garbiketa zerbitzuaren kontratazioa bozkatu beharra genuen, 3.180.685,55€-ko gastua bi urterako. Hurrengo legegintzaldia guztiz baldintzatuko duen erabaki garrantzitsu bat zen, eta ezin daiteke astebetean erabaki. Ez daukagu aurrekonturik, ez dakigu hurrengo aurrekontuetan guzti hau zelan ordainduko den... Erabaki tekniko bezala jaso dugu proposamena, baina erantzukizuna politikoa da. Durango itoko duelako, zoritxarrez udalak ezin diolako aurre egin horrelako gastu bati, aurreko lizitaziotik prezioa izugarri igotzen delako. Beste aukerarik geratu ez zaionez, bere burbuilatik bajatu, eta alkateak puntua osoko bilkuratik atera behar izan du. Oraingo kontratuaren luzapena dakar horrek, eta pleguak zentzuz lantzeko aukera emango digu. Aportazioak egin ditugun bakarrak izan gara astebeteko epea eman ostean.

Gobernu talde bat da lehen-tasunak, epeak... markatu beharko lituzkeena; Durangon ez, teknikoak dira guztia aurrera eraman behar dutenak. Gobernu talde hau etxean geldituta ere berdin funtzionatuko genuke.

Gaur zabalduko dute Ibarra eta San Pio arteko zubia

Sartzeko eta irteteko beste bide bat egongo da herrian



Gaur egingo dute zubiaren inaugurazioa.

ELORRIO M.O.

Gaurtik aurrera Elorrion sartzeko eta bertatik irteteko bide bat gehiago egongo da, San Pio X eta Ibarra kaleen arteko zubiari esker. Herriko mugikortasunari dagokionez, Elorriorentzat proiektu "estrategikoa" dela azpimarratu izan du udalak, herri barruko trafikoa arintzea eta berrantolatzea delako helburua. Uztailean hasi zituzten obrak, 665.000 euroko aurrekontuagaz, eta amaitu berri dituzte. Gaur zabalduko dute zubia, inaugurazio ekitaldi batez.

Gasolindegi alboko biribilguneak Elorrion sartzeko hirugarren bide bat eskainiko du hemendik aurrera, zubi berritik sartuta. Gainera, herriko trafikoaren irteerarako ere balioko

du. Zubiaren galtzadak ibilgailuentzako errail bi izango ditu. Bi espaloie egongo dira alde banatan, eta bizikletan ibiltzen direnentzako 2,40 metroko erraila egin dute.

Bi espaloie egongo dira alde banatan, eta bizikletan ibiltzen direnentzako 2,40 metroko erraila egin dute


Joseba Mujika alkateordeak azaldu du uda osterako beste aldaketa bat egin gura dutela. San Pio X kalea herrigunera sartzeko bakarrik egokituko dute, eta oinezkoek lehen-tasuna edukitzeko prestatuko dute.

hitz
liburudenda


artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com




Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:



HILDUAK ARTE JIGARREN
Katixa Aguirre (2015)



UME ETA GAZTEENTZAT
LEITH EN ALTORRIA
Carla Trepot (2012)



MUSIKA
SERRAIOGINKA
Inun (2014)

GAER  **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

2014an 379 gaztek jaso zuten Jar Zaitez Martxan proiektuaren laguntza

32 enpresa proiektu sortu ziren; abendurako hemezortzi alta emanda zeuden



Augusto Uriarte, ezkeretik lehena. Alboan, Abadiñoko Inma Zapardiez zinegotzia eta Iñaki Totorikaguena lurretako alkatea.

DURANGALDEA M. Onaindia Durangaldeko Amankomunazgoa eta hamabi udal –Atxondo eta Otxandio ez beste guztiak– Bizkaiko Foru Aldundiaren Gaztedi Planera batu ziren, eta gazteei lana topatzeko zein emantzipazioa sustatzeko baliabideak emateko asmoa agertu zuten. Horrela, Jar Zaitez Martxan izeneko proiektua hasi zuten iaz, eta aurten bigarren fasea garatuko dute. Behargintza zerbitzutik bideratutako ikastaro, aholku eta diru-laguntzak batuta, 379 gaztek jaso zuten iaz egitasmoaren laguntza.

Augusto Uriarte Behargin-tzako zuzendariak eman zituen datuak martitzenean, hainbat

kargudunekin batera egindako prentsaurrekoan. Esaterako, lana topatzen laguntzeko eskainitako ikastaroetan 93 neska-

Lana topatzen laguntzeko eskainitako ikastaroetan 93 neska-mutilek parte hartu zuten

mutilek parte hartu zuten, eta 26 eta 29 urte bitartekoak izan ziren gehienak. Ekintzaileengan pentsatuta, aholkularitzako hamalau jardunaldi egin zituzten, eta 204 gaztek parte hartu zuten. Horri esker, 32 enpresa proiektu

ipini ziren martxan; abendurako hemezortzi alta emanda zeuden, eta beste hamar bat ematear. Bestalde, 40 enpresari 1.100 euroko laguntza bana eman zieten, eta horretarako 44.000 euro inbertitu zituzten. Enpresa horiek urtebetean alta emanda egoteko konpromisoa hartu zuten, laguntza jaso ahal izateko.

Iaz 224.000 euroko aurrekontua eduki zuen egitasmoak, eta aurten 187.000 eurokoa izango du. Hitzarrena sinatutakoan adostutako kopurua fase bitan zatitu dutelako dago aldea urte batetik bestera. Adibidez, enpresentzako diru-laguntzetan igarriko da aldea, 25 izango direlako 40 beharrean.

LED sistemagaz, kale argiterian ia %80 murriztea aurreikusten dute

ZALDIBAR Itsaso Esteban Kaleko argiteriaren kontsumoa %80 murriztea ekarriko duen aldaketa egin du Zaldibarko Udalak: presio handiko sodio-lurrunezko 165 lanparen ordean, LED teknologikoak ipini dituzte. Udalerriko zati handi bateko argiteria da aldatu dutena, eta 67.000 euroko inbertsioa behar izan dute lanparak aldatzeko; Bizkaiko Foru Aldundiak hartu du gastuaren %60 bere gain, %20 Energiaren Euskal Erakundeak eta %20 Zaldibarko Udalak.

Kontrol sistema berriagaz, leku bakoitzera egokitu ahalko da lanpara bakoitzaren potentzia

Udaleko arduradunek aurreratu dutenez, argi kontsumoari zein mantentze-lanari dagokienez, aurrezki handia ekarriko du aldaketa honek: urtean 20.000 euro aurreztuko ditu Zaldibarko Udalak energia kontsumoan. Beraz, hiru urtean amortizatuta egongo da 60.000 euroko inbertsio osoa.

Lanparak aldatzeaz gainera, kaleko argietan banan-banan esku-hartzea ahalbidetzeko, urrutiko kontrol sistema ezarri dute; horri esker, leku bakoitzera egokitu ahalko da lanpara bakoitzaren potentzia.

> DURANGALDEA ASTEON

Hainbat ikastaro probatzeko aukera

ELORRIO > Ikasturteko hirugarren hiruilekoari ekitagaz batera, promozio berezi bat eskainiko dute, martxoaren 30etik aurrera, Elorrioko kiroldegian. Eskaintza berezi horregaz, ikastaroren batean dabilzan kiroldegiko bazkide integralk beste ikastaro bat doan probatzeko aukera edukiko dute astero.

Durangoko Orfeoien saioa

DURANGO > Aste Santuko emaldia eskainiko du Durangoko Orfeoien martxoaren 28an, 20:00etan, Andra Maria elizan. Orfeoien abeslariekin batera, 25 musikariko ganbera orkestra ere ariko da domekako kontzertu horretan. Fernando Urain Oñederra debatarrak egingo ditu kontzertu horretan zuzendari lanak.

Herbehereetako ikasleak, Elorrioren

ELORRIO > Herbehereetako Ubbergen hiriko Notre Dame Des Anges ikastetxeko 21 ikasle eta bi irakasle hartu dituzte asteon, Elorrioren. Lehenengoz egin dute truke hori Elorrioko institutuak eta Notre Dame Des Anges ikastetxeak, eta, horri esker, Euskal Herria ezagutu dute herbeheretarrek.

► Iritzia

1937an exiliatuak

1937. urteko martxoaren 31 zorigaitzokoa gogoratuko dugu egunotan. Eta oso ondo dago. Baina, orain, Euskadiren eta Errepublikaren kontra militarki altxatu zirenen erruz hasitako gerraren ondorioz, 1937an eta hurrengo bi urteetan izandako exiliatuek ere gomutatu behar dugu. Exiliatuak diot, latinezko *exilium*etik sortua, motibo politikoengatik erbesteratua.

Durangoko Uriak eta eskualdeak noizbait omendu beharko dituzte erbesteratu, exiliatu, behar izan zuten hainbeste lagun; eta kaleen izeketan, bederen, aitortu beharko dituzte. Leizolari eta Rubialari ezer kendu gabe –biak ezagutu nituen, eta lehendabizikoari buruz *Bidegileak* bildumako liburu bat idatzi nuen–, hor ditugu durangar exiliatu bi, jaioterrian kale bana merezi dutenak: batetik, Ruiz-Ertzilla *Gogorra*, jeltzalea eta ELA-STVko idazkari nagusia izandakoa. Ga-

raziko Izpuran hil zen, eta bertan hobiratu zuten, miserian eta ahaztuta; gogoratzen naiz bere aldeko hiletetan zer jende gutxi bildu ginen, Urribarriko Andra Mariko elizan: Anton Zelaieta, Jesus Uriguen... Eta, bestetik, Cosme Uriarte exiliatua, zinegotzi sozialista eta UGTko buruzagia. Mexikon urte dezente igaro ostean, Durangora etorri zen hiltzera.

Pilar Zubiaurre garaitarra ere badago erbesteratuen artean, hori ere Mexikora exiliatua; bera etorri ahal zen hona, baina haren senarra, Leopoldo Gutierrez Abascal, ez; izan ere, Izquierda Republicanakoa zen. Senar-emazte biak hil ziren exilioan. Eta Durangaldeko gainontzeko herrietan ere izango ziren exiliatu asko.

Uste dut gure historiagileek zerrendatu beharko lituzketela herriz herri, eta merezi duten aitorrena gauzatu beharko luketela agintariek.

Zorionak eta eskerrik asko Euskahaldun guztioi!

19. Korrika Urepelen hasi da, eta Bilbon amaituko da. Korrikak euskararen inguruan batzen gaitu, ekimen erraldoi hau gauzatzeko, behar-beharrezkoa dugu eta denon parte-hartzea.

Batzuk antolaketan laguntzen, beste batzuk ekarpen ekonomikoak egiten, hurrengokoak ekitaldietan parte

hartzen, haragokoak bide bazterretan animatzen... Den-denok zarete garrantzitsu, eta zeuoi guztioi esker egiten dugu aurrera.

Beraz, eskerrik asko Durangaldea, zuen laguntza barik ezin izango genuelako hain Korrika mundiala egin.

Miren Iturriagaetxebarria
Durangaldeko AEKren izenean

Jose Luis Lizundia



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarfeak barne).


Hauteskundeak

EAJren Durangaldeko hautagaiak prest daude

EAJk Durangon egin du hautagaien aurkezpena



EAJko alkategaiak, Landakon.

EAJ M.O.

EAJren hautagaien aurkezpenean, Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko presidentek esan zuen pertsonak direla euren jardunaren helburu nagusia. Aitziber Irigoras alkatea ere mintzatu zen: “Abala ematen digun ibilbidea dugu; ilusioz eta harrotasunez betetzen gaituen egitasmoa ere bai”. Hauek dira hautagaiak: Igor Agirre (Malla-

bia), Andoni Agirrebeitia (Zornotza), Erramun Osa (Garai), Iñaki Totorikaguena (Iurreta), Alberto Arancibia (Zaldibar), Eneko Etxebarria (Abadiño), Gorka Garate (Atxondo), Beñat Gorospe (Otxandio), Roland Isoird (Berriz), Joseba Mujika (Elorrio), Oskar Zarrabeitia (Izurtza), Julen Uribelarrea (Mañaria) eta Aitziber Irigoras (Durango).

Herritarren iritziak jasotzen dabiltza jeltzaleak

EAJ Itsaso Esteban

Hauteskunde programa osatzeko, herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzeko asmoz, inkestak egiten dabil EAJ. Abenduan eta urtarrilean egin zituz-

ten lehenengo inkestak Abadiño jeltzaleek, eta, apirilera bitartean, Internet bidez, etxetzeko zein 634 678 592 telefono zenbakiaren bitartez jasoko dituzte iritziak. Otxandio EAJk ere herritarren proposamenak jasotzeko inkesta banatuko du etxetzeko, eta ejajpvotxandio@gmail.com helbide elektronikoa ere herritarren eskura ipini du.

Agirrebeitia buru duen zerrenda aurkeztu du Zornotzako EAJK

M24 J.D.

Andoni Agirrebeitiaren esanetan, *Amorebieta-Etxano hazi arazi* lelo bat baino gehiago da: “Gure erronka da, eta horretan tematuko gara. Ez dago eraikuntza sozialik, desberdintasuna badago. Hazkunde eko-



ANDONI AGIRREBEITIA

nomikoaz gain, solidaritateak eta politika sozialek gidatu behar dute gure eginkizuna”.

Totorikaguena izen berriak lurretarako

EAJ A.U.

Iurretako Uri Buru Batzarrak hauteskundeetarako hautagai-tzaren berri eman du. Iñaki Totorikaguena alkategaiaren ostetik, Zorione Fundazuri izango da bigarren –1995-1999 artean zinegotzi izana–. Hurrengo

Elorrioko EAJren zerrendan, “gizartearen isla ezin hobea”

EAJ Amaia Ugalde

Ana Otadui eta Joseba Mujikak hauteskundeetako ze-



JOSEBA MUJIKA

rrenda aurkezteko ekitaldia egin dute asteon. Mujika alkategaiak nabarmendu duenez, “gizartearen isla ezin hobea” egiten saiatu dira, eta askotariko jendea dago zerrendan; baita EAJn afiliatu bako independenteak ere.



IÑAKI TOTORIKAGUENA

hirurak Oskar Koka, Itsaso Garamendi eta Julian Gorospe dira. Legegintzaldi honetan zinegotzi izan diren Ainhoa Albizuri eta Iñaki Gil ere badaude zerrendan, Albizuri seigarren eta Gil hamaikagarren.

Zerrendaburua hautatuko dute Zaldibarko Omnia taldekoek

OMNIA I.E.

Martxoaren 25era arteko epea ahalbidetu du Zaldibarko Omnia hauteskunde-taldeak, alderdiaren zerrendaburu izan nahi duenak kargurako hautagaitza aurkezteko. Zerrendaburua hautatzeko prozesu horretan parte hartu ahal izateko, zaldibar@ikune.org helbidean edo 670 387 703 telefonoan izena eman behar izan dute.

Bihar goizean, udaletxeko atarian ipiniko duten mahaian eman ahalko dute kideek botoa

Orain, bihar arteko epea edukiko dute botoa emateko prozesu horretan parte hartzeko izena ematen duten zaldibartarrek: zaldibar@ikune.org helbidearen bitartez eman ahalko dute botoa, eta, bihar goizean, udaletxeko atarian ipiniko duten mahaian ere bai.

Martxoaren 27an, liburutegi zaharrean egin zuten ekitaldian aurkeztu zuten Omnia alderdia, maiatzeko udal hauteskundeei begira.

EH Bilduk apirilaren 11n aurkeztuko du Durangoko hautagaien zerrenda

Durangon aldaketa eman, eta gobernatzeko itzaropenez dago EH Bildu

EH BILDU Markel Onaindia Durangoko EH Bilduk apirilaren 11n aurkeztuko du alkatezarako zerrendaburua, eta, beragaz batera, taldea osatuko duten pertsonen zerrenda. Gainera, programaren berri ere emango du Plateruenean anto-

latuko duen ekitaldian. Durangon aldaketa eman, eta gobernatzeko itzaropenez daude koalizio kideak, prentsa ohar bidez diotenez: “Bokazio argi batez jaio ginen, eta bokazio argi batez gabiltza lanean: 2015eko maiatzaren ostean gobernu tal-

dea osatu nahi dugu, herritarrei udalaren ateak zabaltzeko, eta Durango sozialago, euskaldunago, feministago eta jasangarriago bat eraikitzen hasteko”.

EH Bilduk azaldu du 150 lagunek parte hartu dutela hauteskundeetarako programaren lanketan, zortzi lantaldean banatuta. Proposamenetako batzuk aurreratu dituzte prentsa oharrean, eta nabarmentzekoa da udal kudeaketaren ikuskaritza egin gura dutela: “Bada garaia udalaren jardura ilunagaz bukatzeko”.

Horretaz gainera, herritarrek etxe barik uzten dituzten banketxeekin hartu-emanak apurtzeko, euskaraz bizitzeko nahia elikatzeke eta udal erai-kinetako energia sistemen %50 berriztagarri bilakatzeko konpromisoa hartu dute.

EH Bilduk 50 lagunekin jardunaldia egin du Elorrian

EH BILDU M.O.

Elorrioko EH Bilduk *Zurea da hitza* jardunaldia egin zuen eguaztenean, Arriolan, 50 laguneko parte-hartzeagaz. Azken asteetan egindako batzarretan irteerako ideiak adosten eta osatzen ibili ziren jardunaldian, bost taldetan banatuta: Gizarte arloa, Hezkuntza eta Berdintasuna, Kirola eta Euskara, Hirigintza eta Auzoak, eta Kultura eta Turismoa. “Herritarren parte-hartzea da gure indargunerik nagusia, eta hori agerian geratu beste behin”, esan dute balorazioan. Pentsamendu ezberdinetakoen artean lantzea izan da EH Bilduren asmoa, azaldu dutenez.

Orain, lanketaren azken fasean sartuko da koalizioa, beste batzar erronda bat egin, eta behin betiko hauteskunde programa osatzeko.

Iurretako EH Bilduk lokala ireki du Bixente Kapanagan

EH BILDU A.U.

Udal hauteskundeak lantzeko lokala hartu du Iurretako EH Bilduk Bixente Kapanaga kalean. Atzo zabaltzeko zuten herririkok, kale horretako 13. zenbakian. Informazioa emateko gunea izateaz gainera, herritarren iritziak jasotzeko buzoia ere ipiniko dute lokalean.

Etxez etxe aldizkari bat banatu dute EH Bildukoek. Bertan, legegintzaldiaren balorazioa egin dute, eta herritarren iritzia jasotzeko inkesta bat ere banatu dute. Inkesta hori da lokaleko buzoian jaso gura dutena, herritarrek bete ostean.

Bestalde, atzo lokalean egindako ekitaldian www.biribildu.info webgunea ere aurkeztu zuten. Bertan, Iurretako EH Bilduren informazioaz gainera, balorazio inkesta ere jarri dute, herritarrek bete dezaten.



EH Bildu koalizio kideak, apirilaren 11ko ekitaldira deitzen.

Musika ikuskizun berritzailea, Doinuzahar abesbatzaren eta Jesus Egigurenen eskutik

Martxoaren 29an, 19:00etan, Durangoko Andra Marian eskainiko dute 'Tenebrae-Ilunpetan' ikuskizuna



Valentín Atxotegik, Jesus Egigurenek eta Amaia Basaurik egin dute emanaldiaren aurkezpena.

> MUSIKA Itsaso Esteban
Aste Santuko musika oinarri harturik, eta publikoaren zentzumenak eragin guran, sorturiko ikuskizuna da *Tenebrae-Ilunpetan*. Durangoko Doinuzahar abesbatzak eta Jesus Egiguren musikari durangarrak elkarlanean osaturiko musika emanaldia da, eta domekan eskainiko dute, 19:00etan, Andra Marian.

Tomas Luis de Victoria XVI. mendeko musikariak abesbatze-

tarako konposaturiko musika sakroa eta Egigurenek zinematiko musika inspirazio hartuta sorturiko "musika eszenikoa" dira ikuskizunaren osagaietako batzuk. Victoriak Aste Santuko liturgiarako sorturiko *Officium Hebdomadae Sanctae* obrako hamaika erresponstu eskainiko dituzte, batetik, eta Egigurenek ikuskizun honetarako egindako musika elektro-akustikoa tartekatuko dute, bestetik. "Gurutze-

Egigurenen berbetan, gauza berritzaileak egin beharraren gogoetatik sortu dute proiektu hau

bideak bi musikari horiengan sorturiko inspirazioaren erakusle" da, aurkezpenean esan zutenek, ikuskizuneko musika;

apaindura gutxiko musika "soil, bare eta apala" da Victoriarena, eta irudi eta sentsazio biziak eskaintzen dituena Egigurenena.

Gainera, dantza garaikideak eta poesiak ere izango dute emanaldian lekurik. Gerardo Diegoren, Lope de Vegaren, Santa Teresa Jesusenaren, Blas de Oteroren, Joxan Artzeren eta Felipe Juaristiren olerkiak irakurriko dituzte emanaldian. José Ramón Arrizabalagak, Bego

Bodasek eta Amaia Zinkunegik irakurriko dituzte poeton berbak, eta Marina Scottok dantzari frantsesak eskainiko du dantza garaikidea.

Valentín Atxotegi abesbatzako kideak azpimarratu duenez, bestalde, argiztapenagaz ere jolastuko dute: "Andra Mariako basilikaren ikuspegi berritzaileaz gozatuko dute ikusleek, argiztapen berezi horri esker".

Erlijosoa beharrez, kulturala izan da ikuskizun hau sortzeko helburua, Amaia Basauri Doinuzahar abesbatzako kideak azaldu duenez: "Espiritualtasun berezi bat dauka musika erlijiosoak; sinestunak ez diren askorengan ere emozioak sortzeko gaitasun berezia dauka". Hain zuzen, publikoa hotz ez uztea izan dute helburu nagusi ikuskizunaren sortzaileek.

Berritasuna eskaintzen

Jesus Egiguren musikariak kontzertuaren aurkezpenean azaldu duenez, abesbatzen jardun tradizionalaren eta gizartearen arteko distantzia aregotzen dabilela jakitun dira ikuskizun honen sortzaileak. Egigurenen berbetan, gauza berritzaileak egin beharraren gogoetatik sortu dute proiektua, "jendea ohar dadin abesbatzen jarduna ez dela zertan zerbait zaharkitua izan".

Hiru hilabetez lanean ibili dira Doinuzaharreko hemezortzi kide eta beste hamar kolaboratzaile, ikuskizuna sortzeko.

> MUSIKA

Martxoaren 13an, Berrizko Hiltegixe gaztetxean jo zuen Alerta taldeak, urtebetez diskoa prestatzen egon ostean, lehenengo kontzertua. Urte bat lokaleko lau hormen artean ateratzen barik egon eta gero, "energiar beteriko emanaldia" eskaini zuten bost taldekideek, Berrizko gaztetxearen lagunartean. Durangaldeko hardcore eszena bultzatzeko sorturiko Hardcore Crew elkarrekin antolatutako kontzertua izan zen Berrizkoa, eta *Seguimos creyendo* disko berriko kantak eskaini zituen Alertak.

Taldekideen berbetan, "lan-artisaua" izan da egindakoa, Alertak ohi duen eran. Metal eta hardcore estiloak uztartzen dituzten hamaika kantuko diskoa da *Seguimos creyendo*.

Hainbat lagunaren kolaborazioa eduki dute ahotsetan. Lagun horietako batzuk Berrizko Tres41 taldekoak dira, eta, hain zuzen, apirilaren 25ean eurekin joko dute Alertakoek, Durangoko Plateruenean. "Oso harro

'Seguimos creyendo' diskoa osatu du Alerta taldeak, 17. urtebetetzean

Diskoa prestatzen urtebete eman eta gero, Berrizen jo zituzten kanta berriak



Apirilaren 25ean, Tres41 eta Alerta taldeek Plateruenean joko dute. Jon Olabariaga

gaude Tres41 taldeagaz jotzeaz. Izan ere, beti egon dira gure alboan, eta, gainera, *Desde el país de los sordos* diskoa itzela da zuzenean", adierazi dute.

Aurrerantzean ere, kontzertuetan ipiniko dute diskoa salgai, eta, gainera, Durangoko Eternal Soul tatuaje estudioan, eta Zaldibarko Sorgin eta Iurretako Gau Argi tabernetan ere eskuratu ahal izango da. Interneten, besteak beste, taldearen www.alertametal.com webgunean ipiniko dute salgai.

Hamazazpi urtez, eta bizi

Hamazazpi urte bete ditu Alerta taldeak, eta, diskoaren izenburuan dioten bezala, egiten duten horretan sinesten jarraitzen dute: "Zaharrago egiten gabilta, eta bizitzak gero eta bide estuagoetatik garamatza, baina garrantzitsua da geure buruekin borroka osasuntsu bat mantentzea: bizitzak ezin digu gaztetasunaren freskotasan hori lapurtu", aldarrikatatu dute taldekideek.

> ANTZEZPENA Itsaso Esteban Eguazten iluntzean aurkeztu zuten 22. Durangoko Pasiñoa. Apirilaren 1ean, 2an eta 3an eskainiko dute aurten Aste Santuko antzeppen herritarra. Santa Ana plazan izango dira hiru emanaldiak, 21:00etatik aurrera, eta bi ordu eta laurden ingurukoa izango da ikuskizuna. Atzotik, Santa Ana plazako El Arco tabernan daude sarrerak salgai, 6 euroan, eta 656 777 321 telefonoaren bitartez erreserbak egiteko aukera ere egongo da.

Santa Ana plazako El Arco tabernan daude sarrerak salgai, eta telefonoz ere erreserbatu daitezke

Durangoko Kurutzesantu Museoa egin zuten aurkezpen ekitaldia. Aitziber Irigoras Durangoko alkatea, Xabier Arana eta Txema Asategi Juan de Iciar elkarteak, eta Iñigo Pastor eta Mariola Fernandez antzeleek egin zuten aurtengo edizioaren aurkezpena. Jesusen papera antzeztuko du Pastorrek, eta Mariarena Fernandezek.

Pasiñoa antolatzen duen Juan de Iciar kultur elkarte-

120 partaide ariko dira Durangoko Pasiñoaren 22. antzezpenean

Apirilaren 1ean, 2an eta 3an, 21:00etan izango dira Santa Anako emanaldiak



Kurutzesantu Museoa egin zuten, eguazten iluntzean, Durangoko 22. Pasiñoaren aurkezpena.

ko presidentek, Xabier Aranak, azaldu zuenez, aurten 120 partaidek hartuko dute parte Durangoko Pasiñoan. Ekitaldi hori aprobetxatu zuen Aranak, Pasiñoa ikusle modura bakarrik beharrean, partide modura bizi gura duen oro gonbidatzeko: "Zenbat eta partaide gehiago izan, hobe izango da eskaini

ahalko dugun ikuskizuna", azpimarratu zuen. "Probatzen duenak errepikatu egiten du".

Xabier Aranak aurkezpenaz azaldu zuenez, 45.000 euroko aurrekontua dauka 2015. urteko Durangoko Pasiñoak, eta, "aurrekontuaren parterik handiena argiztapenean eta soinu- inbertitzen dute.

Azken urteetan bezala, Pasiñoa ikustera kanpotik datozenentzat eskaintza berezia egingo dute aurten ere, Durangoko turismo bulegoaren bitartez. Herriko lau ostaturan eskaintza bereziak egingo dituzte, Durangon ostatu hartzeko eta Pasiñoaren antzezpenean ikusteko sarre- rak eskuratzeko.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



Musika (I)

Edertasunaren pertzepzioa subjektiboa da. Horrexegatik hitz egiten da plazer estetikoaz, anegaka saltzen ez delako, instant bat delako kontenplazioa. Hala ere, zenbait adierazpen artistikok gustu unibertsalekoak izan behar dutela, kirtinak, txatxuak edo eskolagabeakoak ez direnak, behintzat.

Edertasuna islatzen ahalegintzen dira artistak, margotzean, idaztean edo konposatzean. Arte horietan maisutasun handiagoa erakusten du esku artean duen bitartekoaz edertasunez mezua komunikatzen duenean. Hau da, forma eta hondoa zenbat eta hurbilago egon, orduan eta ederrago dugu sorkuntza. Sasoi askok musika arte goren izendatu zuten, agian greziarrei jainkoek oparitu delako edo musek lehenbizikoz sortu zutena delako. Izan ere, musikaz esaten da arte bakarra dela non adierazlea eta adierazia gauza bera den-diren.

Egunotan Facebooken ikusi dugu herritar baten auzokideekiko afera: jazz musika ipini omen du etxean, ez hain desordenan ere, eta nahiko bolumen bajutxoan, gainera, baina auzokideek demanda egin diote. Ikustekoak dira haren lagunen iruzkinak sare sozial horretan: auzokideen ezjakintasunaren gainekoak nagusi.

Leku askotan inposatzen zaigu musika gaur egun. Auzokidearenean entzuteaz gain, kalean, tabernetan, jangeletan, ekitaldietan, hondartzan... Esango nuke kutsadura dela horietan guztietan eta urrun dagola oso plazer estetikoetik. Ni behintzat ez nau sekula Stendhal gaitzak jo dentistaren itxarongelan.

<http://www.josunearanguren.blogspot.com.es/>

Baliabide digitalen aukerez eta arriskuez berbetan

Zilar Astearen barruan egin zuten mahai ingurua



Kultur eta komunikazio arloan dabilzan sei lagun gonbidatu zituzten.

> MAHAI INGURUA

Errealitate digitalean kulturak duen lekuaz mahai ingurua egin zuten eguaztenean, Durangoko Plateruenean. Zilar Astearen barruan jarduteko gonbidatu zituzten Durangaldean komunikazioaren eta kulturaren arloetan dabilzan sei lagun; sortzaileen ikuspegia eman zuten Nagore Txintxurreta ilustratzaileak eta *Itsua* musikariak, eta euren esperientziei buruz hitz egin zuten Ekaitz Goienetxea eta Libe Mimenza komunikatzaileak, San Agustin kulturgunearen komunikazio arduratzen den Maider Larrañagak eta Dendak Bai merkatari elkarteak Araceli Guerrero teknikariak.

Dozena bat lagun elkartu ziren, eguazten iluntzean, Plateruenean -modu analogikoan,

aurrez aurreko solasaldian-sare sozialez, teknologiaz eta sorkuntzaz berba egitera: baliabide horiek dakartzaten aukerez, erronkez eta kezkez berba egitera. Gonbidatuen aurkezpenak eta tesiak entzun ostean, giro atseginean euren iruzkinak egin zituzten bertaratu ziren herritarrek ere.

Eguazteneko hitzordu horretaz gainera, gazteei zuzenduriko mundu digitalari buruzko tailerrak ere bideratu dituzte Plateruenean, Zilar Astearen, eta, gaur ere egongo da hitzordurik: *Inprentatik/tintatik ordenagailura/biterra* izenburuko berbaldea eskainiko dute 19:00etan. Gainera, digitalizazioak sortu edo bultzatu ditzakeen gizarte ereduaz gogoeta egiteko proposamena ere luzatu dute anfitroto erakusketaren bitartez.

Santagustinale, 12 - 48200 Durango
santagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

La extraña pareja

Txintxaun kolektiboa

Martxoaren 28an
20:00etan

San Agustin KULTUR GINEA DURANGOKO UDALA

antzerki amateurra

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Londaka etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETXEA
EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

//ZILAR ASTEA DISE//
KULTURA DIGITALEAN

MARTXOAK 27
19:00etan DOKAN
ZILAR ASTEA 15
KULTURA DIGITALEAN
E-RAKURLEAK

BELAKO
APIRILAK 11
22:30etan 84/106
BELAKO + UNCLOSÉ
MUSIKA KONJERTUAK

WOMBAT FEST
MARTXOAK 17/18
www.kulturagunea.net
WOMBAT FEST 2015
MUSIKA KONJERTUAK



JATETXE GIDA

ÑAM!**PEDRO JUAN**

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!**MENU BEREZIA**Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria**60€**
bikoteko
(BEZa barne)**JULIANTXU**

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.**ÑAM!****LAPIKO**

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122Etxeko pizzak. Eguneko menua,
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com**ÑAM!****PLATERUENA Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.**ÑAM!****IBARRA SAGARDOTEGIA**

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA

www.ibarra-sagardotegi.com**Tel.: 946 731 100**Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi
personarentzako menua zozkatuko dugu**Nork zuzenduko du zapatuan Durangoko
bonbardaketaren inguruko bisita gidatua?**Zozketako irabazlea: **Iratxe Urizar** zorionak!

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo

ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

**ZORTE
ON!**

Berbaz

Jon Ander Ramos | Historialaria | Durango, 1978

“Bisita gidatuaren lehenengo zatian, gerra hegazkinek egin zuten bidea egingo dugu”

Bonbardaketaren aztarnak ez dira desagertu Durango; bisita gidatu batek eraso horren aztarnak oinarri hartuko ditu, bihar



> BERBAZ Jone Guenetxea EHuko Gasteizko Letren Fakultateko irakaslea izateaz gainera, Gerediaga Elkarte kidea da Jon Ander Ramos. Bihar, Durangoko bonbardaketaren inguruko bisita gidatua zuzenduko du. Ameriketako historian aditua den arren, Durangoko historian sakondu du oraingo honetan. 1937ko martxoaren 31n faxistek Durango bonbardatu zuten, eta 300 hildakotik gora eta hainbat zauritu eragin zituzten. Eraso horren aztarnak hartuko ditu abiapuntutzat Ramosek.

Azternen bidez berreraiki daiteke Durangoko bonbardaketa? Hori oso zaila da. Gu testu ingurua azaltzen saiatuko gara. Asmoa da ibilbidean zehar hori azaltzea. Bonbardaketa bat baino gehiago izan ziren. Izan ere, bost egunetako eraso izan zen. Goizean Kurutziaga hartu zuten abiapuntutzat, eta arratsaldean Antso Estegiz kaletik, hilerritik behera, Zeharkalea eta Bruno Maurizio Zabala hartu zituzten. Ibilbidearen lehenengo zatian, 1937ko martxoaren 31n zentra-

tuko gara. Ondoren, Ezkurdin 1936ko bonbardaketa azalduko dugu. Handik, San Agustinera eta Neversera joango gara. Azken bi gune horietan gerraren ondorioak aztertuko ditugu.

Kurutziagan abiatuko duzue ibilbide gidatua. Zergatik? Bisita gidatuaren lehenengo zatian, hegazkinek egindako bidea egingo dugu, eta, horregatik, Kurutziagan hasiko dugu ibilbidea. Gipuzkoa aldetik sartu ziren, eta, Andra Mariko kanpandorrea abiapuntu hartuta, bonbardaketa lerroa horixe izan zen. Lehenengo bonbak Kurutziagan bota zituzten. Inguru horretan zegoen kurutzea, eta bonbardaketaren eraginez apurtutako monumentuetako bat izan zen. Gaur egun, kurutzea Kurutzesantu Museoa mantentzen da. Era berean, Garai jauregiaren ondoko fatxadaren metrailaren aztarnak ondo ikusten dira. Hortik, Jesuitetako oroimenaren gunea ere ikusiko dugu. Santa Susanatik pasatuko gara, eta hortik Alde Zaharrera sartuko gara. Hainbat kaletan kaltetutako eraikinak ikusiko ditugu.

Durangoko Alde Zaharreko eraikinetan bonbardaketaren aztarnarik gelditzen al da oraindik?

Harrizko fatxadak zituzten eraikinak guztiz kaltetu ziren barrutik, baina fatxadak mantendu egin ziren. Kurutziagan, Artekalean eta Andra Marian ikusten da hori.

Andra Maria ere bonbardaketen jomuga izan zen.

Durango guztien imajinarioan bonbardaketaren irudiren bat badago, hori Andra Maria suntsiturik ikusten den argazki ezagun bat da. Beraz, Andra Marira ere joango gara. Gainera, martxoaren 31 oroitzeako plaka bat ere badago bertan. Handik Ezkur-

“*Bonbardaketa bat baino gehiago izan ziren; bost eguneko eraso izan zen*”

dira joango gara. XIX. mendean inguru horrek Durango izan zuen garrantzia zein den azalduko dugu. Horretaz gainera, 1936ko irailean, Ezkurdin izandako bonbardaketaz ere egingo dugu berba.

Lehenengo bonbardaketa horrek zer ondorio izan zuen herrian?

Durangoko pilotalekua bonbardatu zuten 1936. urtean. Gainera, fusilamendu batzuk ere egon ziren, eta, horren ondorioz, hildakoak ere bai. Momentu horretatik aurrera herrian bi bandoren arteko enfrentamendua irudikatu zen.

Gerraren beste ondorioetako bat ospitaleen sorrera izan zen. Durango non artatzen zituzten zaurituak?

San Agustinen eta Etxezarreta jauregian egokitutako ospitaleez gainera, erruki-etxe ospitalea zegoen martxan Durango. Apirilaren 2ko bonbardaketan hegazkinek beste pasada bat egin zuten, eta, Gurutze Gorriko bandera zegoen arren, ez zuten errespetatu, eta erruki-etxea

bonbardatu egin zuten. Izurtzan ere beste ospitale bat egon zen.

Bonbardaketa bizi izan zuten askok diote ostekoa oraindik eta gogorragoa izan zela. Zelan gelditu zen Durango?

Alde Zaharra suntsituta gelditu zen. Irakurri dudaren arabera, durangarrek inplikazio handia izan zuten herria berreraikitzeke. Andra Maria eliza 1939ko abenduan martxan zen berriro. Eraikinekin ere gauza bera gertatu zen. Goienkalean, bertan zeuden baserri batzuk suntsituta gelditzean, familia asko joan egin ziren, eta hutsune asko 1980ko hamarkadara arte ez ziren bete.

Urtetan, isiltasun handia izan da bonbardaketaren inguruan, Durango. Zergatik uste duzu gertatu dela hori?

Historia garaikidean aditua ez izan arren, normala dela esango nuke. Durango herri nahiko tradizionalista zen, eta horrek ere izango zuen zerikusia. Bonbardaketan nazionalen aldekoak izango zirenak ere hilko ziren. Gainera, 8.000 biztanleko herri bat hain zatituta egotea nahiko latza izango zen. Familia guztietan egongo ziren alde batekoak zein besteakoak. Dena dela, azken hogeit urteotan 36ko gerraren inguruko gaiek beste traera bat izan dute, eta Durango ere dinamika horretan sartuta dago. Horrelako lanak eta ikerketak egiteko erraztasun handiagoa dago orain. 1960ko eta 1970eko hamarkadan gai hauetaz hitz egitea pentsaezina zen. Uste dut gaur egun gai hau lasaitasun oso hartu behar dela. Bonbardaketa Durangoren historiako zati garrantzitsu bat izan da, tamalez, eta etorkizuneko belaunaldiek ezagutu egin behar dute. Gogoratu beharreko gaia dela deritzot.

Neversen amaituko duzue ibilbidea. Bertan zegoen emakumeen kartzelak zenbat preso hartu zituen?

Emakumeen kartzela hori 1940. urtean zabaldu zuten, eta 2.000 emakume hartu zituen. Durangarrentzat gogorra izan zen trenetan, oso egoera latzean, zetozen emakumeak herrira heltzen ikustea.

Jose Mari Zenitagoia | Athleticceko jokalaria ohia | Elorrio, 1947

“Urtean behin bazkari edo afari bat egiten dugu taldean ibili ginenok”

Zenitagoia eta Igartua Athleticceko jokalaria ohiak omenduko dituzte Elorrion

> KIROLA Eneko Azurmendi Futbolari profesional ohiek osatutako zortzi talde elkarren kontra lehiatuko dira Eleizalden, bihar, 10:00etatik aurrera. Sarrerekin batutako diru guztia Elorrioko Kainabera elkarteak Nikaraguan duen proiektu bati laguntzera bideratuko dute. Futbol partiduen aurretik Athleticcegaz jokatu duten Elorrioko jokalaria ohi bi omenduko dituzte: Jose Mari Zenitagoia (68 urte) da horietako bat.

‘Kotxero’ deitzen dizute. Zergatik ezizen hori?

Bai, etxeko guztioi deitzen digute horrela. Jaio ginen etxearen azpian taberna bat daukagu orain. Baina garai batean, kotxe tailer bat zegoen, eta hortik dator ezizena. Guk ez dugu tailer hori ezagutu, baina norbaitek lotura hori egingo zuen, eta gu ezizen horregaz geratu gara. Egia esan, beti deitu izan digute horrela, txiki-txikitatik.

Athleticeko talde nagusiagaz jokatu zenituen hiru partiduen Lehenengo Mailan. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Zoragarria izan zen. Oso polita. Jose Angel Iribarregaz eta Juan Mari Zorriquetagaz jokatzeko aukera izan nuen, eta esperientzia ahaztezina izan zen. Taldean, gainera, oso giro ona zuten jokalarien artean, eta taldekide arruntak bagina bezala tratatzen gintuzten Bilbao Athleticetik igotzen ginen guztiok.

tan etortzen naiz Elorriora”. Beraz, ondo ezagutzen du Zenitagoia, eta badute harremana. Hala ere sekula ez zute elkarrekin jokatu Athleticen.

Domekan, baloiren bat inguruan harrapatuz gero... “Zoritxarrez ezer ez, aldakan eta belaunean ebakuntza egin didate, eta ezin baloirik jo!”.

Athleticen bigarren taldeetik igaro gabe, gazte mailatik zuzenean nagusietara igo zen Igartua. Sasoi hari “nostalgia puntu batez” begiratzen diola dio, baina ez da izan iraganean bizi den horietakoa. Futbola utzi, eta palan jokatzeko hasi zen, eta munduko txapelketetan parte hartu zuen.

“

Neba-arreba guztiok areto futboleko jokatzeko genuen; taldea osatzen genuen”

Hala ere, esan beharra dago beti talde nagusiagaz entrenatzen nintzela.

Zergatik ez zenituen partidu gehiago jokatu?

Bilbao Athleticen jokatzeko nuen, eta hiru alditan eduki nuen lehenengo taldeagaz jokatzeko aukera. Gero, lesioekin arazo handiak izan nituen, eta ezin izan nuen jarraikortasunik lortu lehenengo taldean. Hala ere, beste talde batzuetan jokatzeko aukera izan nuen ondorengo urteetan: Logroñesen eta Cadizen. Ondoren, Elorriora etorri nintzen bueltan. Zorte txarra eduki genuen, eta Hirugarren Mailatik jaitsi egin ginen. Nik lan bikoitza egiten nuen talde horretan. Jokatzeko gain, entrenatzaile lanak ere nik egiten nituen. Lau urte eman nituen horrela, eta gero jokalaria izateari utzi nion.

Eta entrenatzaile postuan jarraitu zenuen?

Bai. Elorrion bertan jarraitu nuen, eta, geroago, Zaldibarren ere ibili nintzen. Horretaz gainera, ikastolan eta goiko eskolan ere ibili nintzen Gorputz Heziketako eskolak ematen.

Herrian ezaguna izango zara, orduan.

Bai, herria handia ere ez da, eta guztiok ezagutzen dugu elkar. Baina guztiokin harreman ona dut nik. Hala ere, esango nuke gazteekin harreman bereziagoa dudala, asko maite naute, eta nik ere bai haiek. Semea ere nahiko ezaguna dut. Lor musika taldean gitarrari jotzen zuen eta abestu egiten zuen. Oraindik ere musikagaz jarraitzen du, baina ez lehenengo moduan.

Jose Maria Igartua ere Athleticceko jokalaria izan zen. Kointziditu zenuten inoiz?

Bera gazteekin entrenatzen zen, Javier Clementegaz batera, eta

ni talde nagusiagaz. Beraz, ez genuen aukerarik izan elkarrekin jokatzeko. Hala ere, gero berak nik baino partidu gehiago jokatu zituen talde nagusiagaz.

Anekdotarik izango duzu kontatzeko.

Badut gertakari bat, baina ez da gauza handia. Kontua da Athleticcegaz entrenatzen nentzen egun horietako batean, Getxon, aulki bat aurretik eraman nuela. Goitik zetorren baloi bat zen, eta ni hari begira joan nintzen korrika, kontrolatu nahian. Hainbeste gogo nuen baloia harrapatzeko, ezen konturatu ere ez nintzen egin parean aulki bat zegoela. Hankan min apur bat hartu nuen, baina entrenatzen jarraitu beharra zegoen.

Omenaldia egingo dizuete partiduen aitzakian.

Bai. Dagoeneko gu ez gaude futboleko jokatzeko, gure garaiak pasatu ziren.

Partiduak ikusten inbidiarik ez duzu pasatzen?

Nahikoa egindakoak gara gu. Athleticekin ez nentzenen, areto futboleko jokatzeko nuen anai-arrebekin, asko gara eta. Zortzi mutil eta hiru neska. Guztiok izan gara futbolzaleak txikitatik. Taldea osatzen genuen, eta inguruko herrietan zehar partidua jokatzeko ibiltzen ginen. Horretaz gainera, pelotan ere ibilitakoa naiz.

Familia futbolzalea duzu, beraz.

